

Ebazpena: R018/2023

Espedientea: 27/2015 eta 28/2015 metatua

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatutako gatazkei buruz, zeinen helburua baita RISA zergapekoaren (KSAr aldatu du sozietate-izena) ordainarazpen-eskumena zehaztea da, 2008ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari dagokionez eta 2008ko eta 2009ko BEZe dagokienez. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 27/2015 eta 28/2015 espediente-zenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- RISA sozietateak zerga-egoitza Gipuzkoan du, eta garbiketa-gaien eta -produktuen handizkako merkataritzan aritzen da. Eragiketen bolumena 7.000.000 eurotik gorakoa izan zen 2007an eta 2008an.

2.- Sozietateak 2008ko sozietateen gaineko zergaren eta 2008ko eta 2009ko BEZen autolikidazioak aurkeztu zizkion GFari borondatezko epean, eta eragiketa-bolumenaren % 100 hari egotzi zion.

BEZari dagokionez, 2008an 123.453,51 euroko saldoa konpentsatu behar zen, eta 2009an, aldiz, 9.812,37 euroko saldoa itzuli.

3.- 2010eko martxoaren 10ean, sozietateak idazki bat aurkeztu zion GFari. Bertan, 2009ko tributazio-proporzioa aldatu zuen, eta Estatuari % 41,79 esleitu zion.

4.- 2010eko martxoaren 17an, sozietateak 2009an Estatuari egotzitako BEZaren proportzioa itzultzeko eskatu zion ZAEari, GFAk berea baino ez baitzuen itzuli.

5.- 2011ko martxoaren 15ean, ZAEAk RISaren 2009ko eragiketen bolumenaren proportzioa egiaztatzeko eskatu zion GFari.

6.- GFAk 2009ko egiaztapenak egiten zituen, baita 2008koak ere, eta 2012ko urtarrilaren 11n akta bakarrei hasiera eman zien. Hala, Estatuari 2008rako eragiketen bolumenaren % 47,92 egotzi zion (bai BEZari bai sozietateen gaineko zergari dagokienez) eta 2009rako, berriz, % 41,79.

7.- Akta bakarrak 2015eko otsailaren 16an trukatu ziren.

8.- 2015eko apirilaren 14an, ZAEAk inhibizioa eskatu zion GFari, bai 2008ko sozietateen gaineko zergari dagokionez, bai 2008-2009ko BEZari dagokionez.

9.- GFAk isilbidez eutsi zion bere irizpideari.

10.- 2015eko ekainaren 10ean, ZAEAk Arbitraje Batzordeari planteatu zizkion gatazkak, eta metatu ondoren, prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazkak ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan aurreikusitakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuari aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Prozedurak metatzea

Arbitraje Batzordeak 2021eko azaroaren 26an erabaki zuen 27/2015 eta 28/2015 prozedurak metatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluari jarraikiz (1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua), eta hauxe dio:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Eragiketen kokalekua

GFAREN ustez, lurralde erkidean egiten diren eragiketak produktuen salmenta jakin batzuk dira, eta, kostuak merkatze aldera, hornitzaile batek (Textil Colomer Nadal SL) Albaidan (Valentzia) dituen instalazioetatik garraiatzen dira, bezero jakin batzuentzat (Lidl, Carrefour, Dia, Unagras, Carrefour Internacional). Hala, garraioaren abiapuntua hartzen da kokapen-arau gisa.

GFak adierazi duenez, haren datu-baseen arabera, RISAREN zerga-egoitza Albaidan (Valentzia) dago gaur egun; bertan alokatu zuen 2009an (nahiz eta 2010era arte ez zen martxan egon) jarduera garatzeko establezimendu bat.

Auzitegi Gorenaren 2323/2011 Epaiak (ROVER Epai gisa ezagunagoa) jada baztertu zuen garraioaren abiapuntua, zergaren aplikazio-lurraldearen barruan igarotzen diren garraioen kokapenaren irizpide gisa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren eta Arbitraje Batzordearen 7/2021, 16/2022, 160/2022 eta 163/2022 ebazpenen arabera, enpresak merkaturatze-lana egiteko baliabide materialen eta giza baliabideen egitura nahikoa duten merkataritza-ordezkaritzak non dituen, han sortzen da lan horren balio erantsia. Egiaztatu denez, 2010era arte ez da halakorik gertatu Valentziako probintzian.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

- 1.- Adieraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola RISA zergapekoari 2008ko sozietateen gaineko zerga eta 2008-2009ko BEZa ordainarazteko eskumena.
- 2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta KSArri jakinaraztea.